



Horman gora izarretaraino

Adam Ondra, Patxi Usobiaga eta Iban Larrion izarrak dira eskaladaren munduan. 17 urtean haiek bakarrik igo izan duten pareta bat konkistatu du Martin Urrutia elorriar gazteak: 9a kalifikazioa duen 'Psikoterapia' bidea. • 18

Itunpeko ikastetxeak zein bere errealitatetik dabilta greba deialdiari erantzuten

Lan hitzarmenaren negoziazioak Jesuitak, Maristak, San Antonio eta Nevers ikastetxeei eragiten die Durangon. • 4

Toloto erreka berbideratuta, Elorrio eraldatzea dute helburu

Elorrio | Alkatearen esanetan, urteetako lanaren emaitza da. Lanek bederatzi hilabeteko iraupena izango dute • 9



Espainiar estatuko hauteskundeak: Durangaldeko datuak ANBOTOn

Durangaldea | Domekako hauteskundeetan, 62.809 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea Durangaldean. ANBOTOk emaitzen jarraipena egingo du bere webgunean: anboto.org

8. orrialdean

ALKIMAX
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



BIDEKO BARRERA



HESIAK



KONOAK



SEMAFOROAK



SEINALEAK

SEINALIZAZIOA



**Angel Arkarazo
Azkargorta**
Abadiñoko zinegotzia
1979-1983 legealdian
Abadiño | 1947

“Ikur frankista guztiak kentzea agindu genuen, baina ez genekien harlauza bat buelta emanda utzi zutela”

Angel Arkarazo frankismo osteko lehenengo udalbatzako zinegotzia izan zen Abadiñoko Ezker Herritarra koalizioan. Legegintzaldia hasteagaz batera, ikur frankistak kentzeko proposamena eraman zuten plenora

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

1979an ikur frankisten gaia oso presente zenuten.

Gai hau lehenengo edo bigarren plenora eraman genuen. Legegintzaldi hasiera zen. Ikur frankistak kentzea zen asmoa.

Koalizio bat zineten.

Abadiñoko Ezker Herritarra deitzen zen koalizioa. 13 zinegotzitik lau lortu genituen. Udalbatzan 7 zinegotzi jeltzale zeuden, PCko bat eta sozialista bat. Ni kulturako zinegotzia nintzen. Ikur frankistak kentzearena gure programan sartu genuen gai bat zen. Plenora eraman genuenean, aho batez onartu zen.

Zein ikur frankista kentzea proposatu zenuten zehazki?

Abadiñoko hilerriko hobitik ikurrak kentzea proposatu genuen. *Anai arteko gerrate negargarri baten hildako abadiñarren hilarrria* esaldia jarri genuen. Guk ikur guztiak kentzea agindu genuen, baina ez genekien harlauza bat buelta emanda utzi zutela. Gainera, Urkiolan hareharrigaz eginda zegoen monumentu bat kentzea ere eskatu genuen. Otxandioko frontea zegoenean, militar alemaniar batzuk hil zituzten. Kapitain bi eta komandante bat zirela uste dut. Harri hori apurtu egin genuen zinegotzion artean. Gerora, inoiz damutu naiz handik kendu beharrean apurtu egin genuelako.

Kale izendegia ere aldatu zenuten.

1977an, frankismoa amaituurretik, hauteskundeak egin ziren. Sasoi hartan, Abadiñon auzo elkarte bat zegoen eta kale izen batzuk proposatu genituen. Batzuk onartu zizkiguten. Adibidez, Abadiñoko Txanporta, Trañabarren... Gaur egun Txanporta izenagaz ezagutzen duguna Brigadas de Navarra plaza deitzen zen. Baina 1979ko pleno hartara proposamen zehatzago bategaz joan ginen. Kale izendegi guztien errebisioa egin gura genuen.

Izen aldaketak egiteko zeintzuk irizpide erabili zenituzten?

Politikagaz lotutako izenik ez aukeratzea adostu genuen. Bestela, bagenekien eztabaida izango zela. Horrela, eskualdeko baserrien inguruan asko aztertu zuen Alfredo Baeschlin izena jarri genion kale bati. Unzueta izena jarri genion beste kale bati. Bestalde, galduta zeuden toki izenak berreskuratze-

ko ahalegina egin genuen. Iturritxo, Zeletabe, Solozabal, Arzubi...

Zelako legegintzaldia izan zen?

Batzar guztietan zinegotzi guztiok egoten ginen eta erabakigarriak ziren. Kulturako arduraduna izan nintzen eta hirigintzan ere bageunden. Oso esperientzia polita izan

“

Batzar guztietan zinegotzi guztiok egoten ginen eta erabakigarriak ziren”

—

zen. Gaur egun ezulertu asko daude politikan, baina sasoi hartan ez. Sasoi zailak izan arren, ondo konpontzen ginen. Gai batzuetan mozio bat aurkeztuz gero, batzuetan ez zen onartzen. Baina ados egoten ginen herriko arazoei irtenbidea bilatzeko. Dena zegoen egiteko.


Herrian zeintzuk proiektu ipini zentuzten martxan?

Ikastolen eta eskolen anpliazioa egin genuen, adibidez, eta Matienako saneamendu berria. Proiektua eginda genuenez, kontzertua etorri zenean 500 milioi pezeta eman zizkiguten obra hori egiteko.

“

Ados egoten ginen herriko arazoei irtenbidea bilatzeko. Dena zegoen egiteko.

—



1979ko ekaineko osoko bilkuraren agirieta sarbidea izan du ANBOTOK.



Bi bandoetan borrokatutako gorpuzkiak bertan hobiratzea onartu zuten.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Sinbologia frankista kentzearen eztabaidak ibilbide luzea du Abadiñon, nahiz eta oraintsu berpiztu den gaia, hilerrian dagoen harlauza frankista argitara irten ondoren. Ikurra kenduko duela baieztatu du Mikel Garaizabal alkateak, eta erabaki horrek bat egingo du udalak aspaldi hartu zuen ildoagaz. Izan ere, orain 40 urte erabaki zuen Abadiñoko Udalak sinbologia frankista herritik erretiratzeari, 1979ko ekainaren 27an egindako osoko bilkuran, hain zuzen ere. Bertan, udala osatzen zuten indar politiko guztiek babestu zuten sinbologia frankista erretiratzeari: EAJk, Alderdi sozialistak, Alderdi komunistak eta Abadiñoko Ezker Herritarra koalizioak. Azken talde honek egin zuen ikur frankistak kentzeko eskaria, eta gainerako alderdi guztien babesa lortu zuen.

ANBOTOK sarbidea izan du 1979ko ekainean egindako osoko bilkuraren agirieta. Laugarren puntuan zehazten denez, honako eskaria egin zion Abadiñoko Ezker Herritarrak udalari: "1-Izaera faxista duten erakunde guztien, eta, batez ere, Fuerza Nueva delakoaren jarduna bertan behera utzi dadila. 2- Herrian

Hilerriko ikurra, beste katebegi bat orain 40 urte hasitako bidean

Abadiñoko Udalak 1979an hartu zuen ikur frankistak herritik erretiratzeko erabakia, aho batez, Espainiako Memoria Historikoaren Legea indarrean sartu baino 32 urte lehenago

antolatzeoak diren ekintza faxisten aurkako jarrera hartzea. 3-Orain arte 'Plaza Liberación 26 de abril' eta 'Plaza Brigadas de Navarra' modura izendatutako plazak, aurrerantzean, betiko eran eta herritarrek izendatu ohi dituzten modura izendatzea, 'Txanportako plaza' eta 'Ferialeku' modura. 4- Herriko hilerrian dagoen erorien monumentua eraldatzea, gerran hildako guztien gorpuzkiak bertan jasotzea, bai bando izen-abizenak ipintzea ordena alfabetikoan, bakoitza zein bandotan gudukatu zen agertu barik, eta, honelako zerbait esan dezakeen plaka bakarra ipintzea: "Anaiarteko gerrate negargarri baten hildako abadiñarren hilarria". 5-Urkiolan, Condor Legioko hegazkinlariak omentzen dituen eta alemanez idatzita dagoen monolitoa desagerraraztea (...)". Osoko bilkura hartan jasotako puntu horiek denak aho batez onartu zituzten. 2007an espainiar estatuak

onartutako Memoria Historikoaren Legeak jasotzen dituen hainbat punturi hartu zien aurrea Abadiñoko Udalak, 32 urte lehenago.

Egungo panteoia

Hilerriari aipamena egiten zaion puntuak baditu azaldu beharreko kontu bi. Testuak hilerriko panteoi bati egiten dio erreferentzia. Gerraostean eraiki zen eta izaera frankista zuen lehenengo urteetan. Osoko bilkuran onartutakoaren ondoren, baina, izaera aldatu zitzaion. Gaur egun ikusgai daude Abadiñoko Ezker Herritarrak proposatutako plaka eta testuak. Baina, gudukatutako izen-abizenak ezabatuta daude. Geroagoko osoko bilkuretan izen-abizenak ezabatzeko erabakia hartu zuten, antza. Baina oraintsu agertutako harlauza gaurdaino ailegatu da. Ezkutuan egon da, ahuspez ipinita.

'Hispanitatea' berba garatu eta zabaldu zuen abadiñarra

Abadiñar batek, Zacarías de Vizcarra elizgizonak, bultzatu zuen *Hispanitatea* berba. Gerora, frankistek kontzeptu hori erabili zuten urriaren 12ko ospakizunak izendatzeko



De Vizcarra.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Hispanitate moduan ulertzen den kontzeptua nork asmatu zuen esaterako orduan, historialariak ez dira ados ipintzen, baina gehienak bat datoz kontzeptuari zabalkunde abadiñar batek eman ziola esatean: Zacarías de Vizcarra elizgizonak. Abadiñon jaio zen, 1887an, eta 1912an abade egin zen. 1926an,

Argentinan zegoela, urriaren 12ko orduko Arrazaren eguna handik aurrera Hispanitatearen eguna modura izendatu zedila proposatu zuen. Bere esanetan, ez zegoen termino hoberik "jatorri hispaniarreko herrialde guztiak" berba bategaz batzeko. 1958an, gobernu frankistak kasu egin zion.

'Arrazaren eguna', 'Hispanitatearen eguna' izan zedila proposatu zuen 1926an

Euskarari buruz ere idatzi zuen. Bere *Vasconia españolísima: datos para comprobar que Vasconia es reliquia preciosa de lo más español de España* liburuan (1939) dioenez, euskara "tradizioaren eta bihotzaren hizkuntza da, Espainiaren sustrairik sakon eta historiaurrekoenaren oihartzuna". 1957ko maiatzaren 23an hil zen elizgizona, Indian misiolari zegoela.

Alemanez idatzitako monolito bat zegoen Urkiolan, han hildako naziak ohoratzeko

Hilarriak han gertatutako tiroketa batean hildako nazi bi omentzen zituen. 1979ko osoko bilkuran hala onartuta, birrindu egin zuten, baina arrastoak han daude oraindino



Hilarriaren arrastoak Otxandiotik Urkiolarako bide nagusiaren eskumako aldean daude, askariak egiteko tokiaren inguruan.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Gudariak Condor Legioko lau hegazkinlari atxilotu zituzten Urkiolan, 1936ko apirilaren 5ean izandako tiroketa batean. Hori diote gerra garaiko Eusko Jaurlaritzaren iturriek, eta hori berresten dute Xabier Herrero eta Josu Santamarina EHUKo historia ikerlariak. Azken hauek diotenez, lau hegazkinlari naziak autoz abiatu ziren Legutio-tik (Araba), eta Urkiolako lurretan sartu ziren, bando errepublikanoak kontrolatutako eremuan zeudela

konturatu barik. Horrek gudarien eta autoan zihoazen nazien arteko tiroketa bat piztu zuen. Emaizta argia zen. Tiroketen eraginez, Carsten Woolf Harling hegazkinlarien lehen tenientea hil zen, eta gudariak gainerako hiru naziak harrapatu zituzten. Horietariko hegazkinlari bat, Paul Freese kapitaina, egun batzuk geroago Bilboko ospitale militarrean hil zen, tiroketako zaurien eraginez. Beste biak Walther Kienzle eta Godofredo Schulze Blanck tenienteak ziren. Bilboko

Larrinaga kartzelan espetxeratu zituzten. Urte batzuk geroago, frankistek monolito bat ipini zuten Urkiolan, tiroketa izan zen tokian bertan, hildako hegazkinlariak ohoratzeko. Hilarriko inskripzioak alemanez idatzita zeuden.

1979ko ekaineko osoko bilkuran adostutakoagaz bat eginda, baina, monolitoa birrindu egin zuten. Borrak eskuan hartuta txikitu zuten hilarria, udaltzainek eta zinegotziek. Dena dela, hilarriaren arrastoak ikusgai daude oraindino.

Durangoko itunpeko lau ikastetxeek tokian tokiko errealitateetatik abiatutako erantzuna eman diote sindikatuek deitutako greba deialdiari

Maristak eta San Antonio ikastetxeetan ez da grebarik egin; Nevers eta Jesuitak ikastetxeetan egun bateko eta biko grebak egin dituzte, hurrenez hurren, oraingoan



Sindikatuek deituta, hitzarmen berri baten alde Bilbon egindako manifestazioko irudia.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Itunpeko ikastetxeen lan hitzarmenaren harira, patronalak eta sindikatuek, bideratzaile baten laguntzagaz, egindako batzar sortak

ez du fruiturik eman orain arte. Horregatik, atzo hasi zen hilabeterako greba deialdiari eutsi zioten sindikatuek. Durangon itunpeko

lau ikastetxe daude, zein bere errealitateagaz, eta euretariko langileak errealitate horretatik abiatuta aurre egiten ari zaie greba deialdiari.

San Antonio ikastetxea kooperatiba bat da, baina ez zuten bozketa bitartez erabaki grebara batu ala ez. Langile bakoitzaren erabakia izan zen. Aurreko deialdietan inork ere ez du grebarik egin eta oraingoan ere berdina gertatu da. “Desberdintasun bat dago jasotzen duten finantzaketaren eta lan hitzarmen berrian proposatzen denaren artean, eta gure proiektua arriskuan ipini daiteke. Lan hitzarmenaren alde gaude, baina ikastetxeok jasotzen dugun finantzaketan oinarrituta egon beharko litzateke. Hori xeda gakoa”, adierazi du Oier Urigoitia zentroko zuzendariak.

Nevers ikastetxean ere langile bakoitzaren esku geratu zen greba egin ala ez. Baina langile batzuen artean akordio bat lotu zuten atzo, lehenengo egunean, greba egiteko. Egunotan negoziaketaren egoerari jarraipena egingo diote eta, beharbada, aurrerago berriro batuko dira. Gutxi gorabeherako estimazioen arabera, Haurtzaindegian %100ekoa, Haur Hezkuntzan %60koa, Lehen Hezkuntzan

%15ekoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan %50ekoa izan zen atzo greba egunaren jarraipena, ikastetxeko iturrien esanetan. Ikasleen gurasoak ere informatu zituzten gutun baten bitartez.

Jesuitak ikastetxean, grebaren aurreko egunean egindako batzar batean hartu zuten erabakia. Atzo eta gaur, lehenengo egun bietan, greba egitea erabaki zuten. Horrek ez du esan gura egun bi horietara bakarrik mugatuko direnik, ikastetxeko iturrien arabera. Datorren astean beste batzar bat egingo dute egoera zein den aztertzeko, eta, horren arabera, komiteak proposamen berriak egingo ditu. Hau da, unean uneko jarraipena egingo diote egoerari.

Maristak ikastetxean eguazten goizeko batzar batean hartu zuten erabakia, bozketa bitartez. Langile guztiek ez zuten parte hartu bozketa horretan. Parte hartu zuten langileen artean, greba ez egitea erabaki zen, ikastetxeko iturrien arabera. Beraz, klaseak normaltasunez ematen ari dira.

Txakurrentzako guneak hobetuko dituzte Durangon, iturriak, zakarrontziak eta hesietako itxiturak konponduta

Beharbada gune guztietan iturria ipintzea posible izango ez den arren, horietariko batzuetan ipiniko duela dio udalak



Durangoko txakurrentzako guneetarik bat Errotaritxuen auzoan dago.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Aurreko legegintzaldiko diru sobe-rakina baliatuta, kreditu aldaketa bat egin eta diru horregaz, besteak beste, txakurrentzako guneak berri-tuko ditu Durangoko Udalak. Gobernu taldeak urriko udalbatzan eman zuen erabakiaren berri. Udalbatza amaituta, Iker Urkiza zinegotziak adierazi zuenez, zakarrontziak eta iturriak jartzeaz gainera txakurguneen itxiturak hobetuko dituzte. Iturriak ipintzeaz dagokionez, aurreratu zuten “behabada”

ez dutela txakurgune guztietan iturria ipintzeko aukerarik izango, baina horietariko batzuetan bai. Txakurguneetako seinaleak ere hobetuko dituztela esan dute.

Zebrabide berriak

Txakurguneak hobetzeaz gainera, udalak zebrabide berri bi egingo ditu. Landako etorbidean ipiniko du horietariko bat, eta Sasikoa kalearen inguruetan bestea, auzitegiaren eta tren geltokiaren arteko arloan hain zuzen ere. Neurri honegaz, oinezkoen segurtasuna handitu, eta oinezkoen eta autoen arteko bizikidetzan sakondu gura du udalak. Bai txakurguneak hobetzeko eta bai zebrabideak egiteko, gobernu taldeak 150.000 euroko kreditu aldaketa egingo du, dekretu bitartez.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko azaroaren 8a
18. urtea - 783. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Gorette Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Merezitako aitortza eta hamaika bitxikeria Zelairi Mallabian egindako omenaldian

Herri kiroletan gaur egungo zein iraganeko kirolari ezagunak batu zituen ekitaldiak



Jose Antonio Gisasaola 'Zelai' eta bere emazte Idoia Zenikazelaia, erdian, txapela jantzita, omenaldian parte hartu zuten zenbait lagunekin.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO
Jose Antonio Gisasaola *Zelai*ik mere-
zitako omenaldia jaso zuen joan
zen zapatuan, mallabitarrez bete-
riko pilotalekuan. Harri txikiekin
Euskadiko makina bat txapelketa
irabazi eta beste hainbeste errekor
ezarritako harri-jasotzaile ohiak
eskerrak eman zizkien bertaratu-
tako guztiei, eta hunkituta zegoela
onartu zuen.

Sorpresaz beteriko ekitaldia
izan zen: lehenengo, *Zelaien* ala-
bak eta lobak aureskua eskaini
zioten, eta, ondoren, bere ibilbide
luzean egindako makina bat lagu-
nen opariak jaso zituen.
*Zelai*k herri kirolen munduan
utzitako aztarna handiaren era-
kusgarri da Mallabira batu ziren
aizkolarari eta harri-jasotzaileen ze-
rrenda. Besteak beste, erreferente

handi bi batu zituen ekitaldiak:
Aitzol Atutxa aizkolaria eta Iñaki
Perurena harri-jasotzailea. Era-
kustaldi asko bitxiak izan ziren.
Perurenak, esaterako, gazte-gazte-
tan aizkoran aritu zeneko sasoiak
gogoratuz, 45 ontzako enbor bat
moztu zuen. Izeta familiako hiru
belaunaldik elkarregaz eskainita-
ko harri-jasotze erakustaldia izan
zen ekitaldiko beste une berezi bat.

Berrizko Udalak %1 igoko ditu zergak eta tasak

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoagaz eta Berrizen Podemosen abstentzioagaz onartu dituzte ordenantzak

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Asteon egindako osoko bilkuran,
2020rako zergak eta tasak %1 igo-
tzea onartu zuen Berrizko Uda-
lak, EAJren eta PSE-EEren aldeko
botoagaz eta Berrizen Podemosen
abstentzioagaz. EH Bilduk, oster-
a, gobernu taldearen proposamena-

**Aste honetako bilkuran,
EH Bilduk proposamen
bi egin ditu ordenantza
fiskalaren inguruan**


eskaintzea higiezinak dituzten
baliabide ekonomiko gutxiko
pertsonentzat. Bestetik, ingurume-
naganako begirunea eta jasanga-
rritasunaganako konpromisoa sa-
ritzeko asmoz, autokonposta egin
edo organikoa bereizten duten be-
rriztarrentzat tasa murriztagoak
planteatzea. "Proposamena egin
dugu, baina ez dugu erantzunik
jaso", adierazi zuen Josu Albizuri
EH Bilduko kideak.

"Taldekoak bilkuraren aurretik
batu gara, eta planteamendua
bestelakoa izan beharko zela uste
dugu. Esaterako, bosgarren edu-
kiontzia ipintzekotan gara, eta,
beraz, uste dugu hobari horiek
etorkizunean ipini beharko lirake-
keela", esan zuen alkateak. "Orain
ipintzen baditugu, jende gehiago
animatu daiteke", erantzun zion
EH Bilduko Karmen Amezuak
alkateari.

Proposamena bozkatu ez zuten
arren, Berrizen Podemoseko eta
PSE-EEko zinegotziak EH Bildu-
ren proposamenaren alde agertu
ziren, eta gobernu taldea kontra.

ren kontra bozkatu zuen. Orlan
Isoird Berrizko alkateak jakinarazi
zuenez, planteatu duten igoera oro-
korra eguneraketa "xume bat" da.

EH Bilduk, "urtero" egin duen
moduan, udalaren ordenantza
fiskalak "progresiboagoak eta jus-
tuagoak" izan daitezen, bere pro-
posamenak egin zituela jakinarazi
zuen bilkuran. Honako hauek izan
ziren bere proposamenak: alde
batetik, udalak diru-laguntzak



Publizitate-dokumentua

Amorebieta-Etxanon sinesten dugu

Bat eginda gure herriaren garapenaren alde.

Ikusi zer egin dezakegun zuregatik eta zure herriarengatik
creemosen.com/amorebietaetxano webgunean.

Atxondoko AHTaren aurkako Asanbladak deituta, bihar mendi martxa egingo dute AHTa pasatuko den inguruetatik

Eguerdian, eskualdeko bertsolarietara bertso bazkaria egingo dute Apatako frontoian; antolatzaileek parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko AHTaren aurkako Asanbladak mendi martxa antolatu du zapatarako, hilaren 9rako. Asanbladako kideek jakitera eman dutenez, AHTaren ibilbidetik egingo dute martxa, Abadiñoko mugaraino heldu arte. Ibilbidean zehar geldialdiak egingo dituzte AHTari buruzko azalpen teknikoak emateko. Apatamonasterioko maisu-maistra etxean emango diote amaiera ibilaldiari. "AHTak apurtuko duen etxean emango diogu amaiera ekitaldi xumeari", esan dute Asanbladakoek.

Martxa 10:00etan hasiko da, plazan, eta herritarrei parte hartzeko deia egin diete. Mendi martxa amaitu eta gero, eskualdeko bertsolarietara bertso bazkaria egingo dute frontoian.

Ekimenean batuko duten diruagaz, AHTaren kontrako mugimendua indartuko dutela, eta gainera, etorkizunean etorri daitezkeen gastu juridikoei aurre egitea gura dutela azaldu dute antolatzaileek.



Urriaren 16an Apatamonasterioko plazan egindako agerraldian ateratako argazkia.

Ibilbidean zehar geldialdiak egingo dituzte eta azalpen teknikoak emango dituzte

Lanak geldituta

12 bat urtean AHTren lanak geldituta egon dira Atxondon, eta urriko osoko bilkuran Ane Intxausti EH Bilduko bozeramailearen galderari erantzunez, Xabier Azkarate alkatetik AHTa badatorrela Atxondora jakitera eman zuen. Adierazpen

horien aurrean, eta azken hileotan herrian dauden zurrumurruek ondorioz, Atxondoko AHTaren aurkako Asanblada mugitzen hasi zen. Harrezkero, eguenero egiten dituzte batzarrak herriko plazan, sortzen diren kezkak partekatu eta gaiaren inguruan berba egiteko.

"Herritarrei batzarretara joateko gonbita egiten diegu", azaldu dute behin eta berriro Asanbladako kideek.

Hainbat ekitaldi

AHTaren "etorrera" salatzeke, hainbat ekintza egin dituzte, azken asteotan, Atxondoko AHTaren aurkako Asanbladak deituta. Urriaren 16an, esaterako, agerraldi zabal bat egin zuten herriko plazan, eta hain-

Asteburuan lortutako diruagaz AHTaren kontrako mugimendua indartu gura dute Asanbladako kideek

bat atxondarrek parte hartu zuten bertan. Ekitaldi horretan, egoterra nola dagoen azaldu zuten, eta gobernu taldearen jarrera salatu zuten, besteak beste. Bestalde, joan zen astean, Ganboko obretako lortegian zegoen AHTaren kontrako panela berriztu eta berriro bertan ipini zuten.

Herritarrek hirugarren ibilaldia antolatu dute Mañariko ermitetatik zehar zapatu honetarako

Ibilbide luzeak San Martin, San Juan, San Lorentzo eta Aita Kurutzeko ermitetatik eramango ditu parte-hartzaileak



Iaz 100 bat lagunek parte hartu zuten eta aurtengo kopuru horren bueltan ibiltzea itxaroten dute.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko herritarrek, udalaren laguntzagaz, ermiten arteko ibilbidea antolatuko dute zapatu honetarako. Aurtengo hirugarren aldia egingo du ekimenak.

Izen-ematea egunean bertan, 09:00etan, egin daiteke Mañariko plazan. Izen-ematea euro bi izango

Izen-ematea euro bi da eta batutako dirua ekimena finantzatzeko erabiliko dute

da eta batutako dirua ekimeneko zati bat finantzatzeko erabiliko dute. Iaz, 100 bat lagunek parte hartu zuten ibilaldian, eta aurtengo kopuru horren bueltan ibiltzea itxaroten dute.

Zapatuan iazko ibilbide bera errepikatuko dute eta 09:30ean

hasiko da. Plazatik abiatuta, San Martin da ibilbidean lehenengo bisitatuko duten ermita. Handik, behearantz bide bati jarraituz, San Juan ermitara helduko dira. Ibilbidean hurrengo igaroko duten ermita Urkuleta auzoan dagoen San Lorentzo izango da. Indarrak berritzeko hornidura gune bat

San Lorentzo ermitaren inguruan hornidura puntu bat jarriko dute indarrak berritzeko

egongo da bertan. Geldialdi horren ondoren, ibilbideko azken txanpan Aita Kurutzeko ermitatik igaroko dira, berriro plazara itzuli aurretik.

Ibilbide laburragoa

Ermiten arteko ibilbide osoak hamabi bat kilometro ditu. Gura duenak ibilbide laburrago bat ere badu aukeran. San Lorentzo auzotik zuzenean plazara itzuli eta ibilbidea han amaitzeko aukera eskainiko dute antolatzaileek.



Telefonia konpainien eskaintzak zelan aztertu azalduko dute Izurtzako berbaldian

IZURTZA • J.D.

Kontsumoko Euskal Institutuak telefonia alorreko zerbitzuen gaineko berbaldia eskainiko du astelehenean, 17:00etan, Izurtzako nagusien elkartearen.

Adinekoek oinarritzko eza-gupenak barneratzea da hitzaldiaren helburu orokorra, merkatuan telefonia arloan dauden eskaintzak aztertu eta erabilpen arduratsua egin dezaten. Besteak beste, gai hauek izango ditu hizpide Olatz Hilario kontsumo hezitzaileak: zerbitzu telefonikoen aurreko eskubideak zeintzuk diren kontratua egin aurretik zein kontratua egiterakoan, erreklamazioak zelan egin, edo fakturak zelan baloratu.

Ozonoagatiko kutsadura igo egin da Durangaldean, eta Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioak gainditu dira Urkiolako neurgailuan

Ecologistas en Acción taldeak eman du datuen berri. Bero boladek handitu egiten dute ozonoagatiko kutsadura maila

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA
Ecologistas en Acción elkarteak argitaratu duen txostenetik ondorio nagusi bat atera daiteke: ozonoagatiko airearen kutsadurak okerrera egin du Durangaldean. Hori jaso dute eskualdeko neurgailuek, eta indize bereziki txarrak erregistratu ditu Urkiolan ipinita dagoen neurgailuak.

Ecologistas en Acción taldeak urtero egiten du ozonoagaz lotutako ikerketa. Aurtun, urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean erregistratutako datuak aztertu ditu. Eta, Durangaldearen kasuan, bertan ipinita dauden lau neurgailuak aintzat hartu dituzte. Durangokoa, Abadiñokoa (Urkiolan dago) eta Zornotzako biak (Montorra auzokoa eta Zelaieta parkean dagoena).

Daturik txarrena, Urkiolan
Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen dituen ozonoaren mugak oso modu nabarmenean gainditu dira Urkiolako neurgailuan. Osasunaren Munduko

Erakundeak ozono muga urte osoan zehar gehienez 25 egunetan gainditzea gomendatzen du. Bada, neurketa urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean egin dela kontuan hartuta (guztira, 273 egun), 109 egunetan gainditu da gomendio muga Urkiolan. Hau da, han erregistratutakoak laukoiztu egiten du Osasunaren Mundu Erakundeak markatzen duen gomendio muga. Indizeak apalagoak dira menditik haranera jaitsita. Durangon 10 egunetan gainditu da gomendio muga. Montorran 11 egunetan, eta Zelaieta parkean 18 egunetan. Era berean, ez da ahaztu behar giltzarriak diren datu bi. Bat: urtea amaitu barik dago. Urritik abendura bitarteko epeak aztertzea falta da. Eta bi: gaur gaurkoz, kutsadura eta osasun mugak arautzen dituen legedia malguagoa da Osasunaren Mundu Erakundeak markatutakoa baino. Hau da: indarrean dagoen legedia permisiboagoa da kutsadura indizeekin. Lege araudiak erakundeak



Eguzkiak gogor sakatzen duen egunetan eragin handiagoa du ozonoak.

“**109 egunetan gainditu da ozonoaren gomendio muga urte hasieratik urrira bitartean Urkiolan**”

gomendatzen dituen neurrietara doitzeko eskaria egin dute.

Ozonoa ulertzen
Ozonoari buruz berba egitean, argipen hau beharrezkoa da: ozono geruza lez ezagutzen dena lurrazale-
etik 20-30 kilometrotara dago eta

funtzio onuragarria du: eguzkitik datorren erradiazioa blokatzen du. Hala ere, izaera kaltegarria hartzen du eguzkiak gogor jotzen duen egunetan. Beste gas partikula batzuekin nahastuta, lurrazalera gerturatzeko joera izaten du, eta osasunean eragin dezake.



Bozkatu

ehbildu

Erabaki

BAIETZ!

Domekako hauteskundeetako emaitzen kontaketa ANBOToren webgunean ikusgai izango da

Hauteskunde-mahaiak zarratzen direnean, Durangaldeko herrietako datuen jarraipen zehatza egingo da webgunean eta sare sozialetan

DURANGALDEA • J.D. / A.M. / J.G.

Espainiako hauteskundeetan, 62.809 lagunek dute botoa emateko aukera Durangaldean. ANBOTok hauteskundeetako emaitzen jarraipena egingo du *anboto.org* webgunean. Datu horiek guztiak hauteskundeetako emaitzen jarraipena egingo du *anboto.org* webgunean. Datu horiek guztiak hauteskundeetako emaitzen jarraipena egingo du *anboto.org* webgunean.

Atal berezi honetan, 1979tik hona eskualdean izandako hauteskunde guztien informazioa batuta dago, eta taula eta grafikoak uztartzen dituen atalean kontsultatu daiteke. Gainera, hauteskundearen artean alderaketak ere egin daitezke.

Hauteskunde kanpaina

Espainiar estatuko hauteskundearen atarian, EH Bilduk ekitaldia egin zuen eguazten arratsaldean Durangoko San Agustin kultur gunean. Kongresurako hautagaiak bertan izan ziren, tartean, Oskar Matute Bizkaiko zerrendaburua, eta Bizkaiko zerrendan bigarrena



Voxek hauteskundeetako ekitaldia egin zuen eguaztenean Durangon; arratsaldean ekitaldi horren kontrako kontzentrazioa egin zuten zenbait gaztek.



EH Bilduren ekitaldia Durangoko San Agustinen.

den Idurre Bideguren. Gizarteak aurrean duen “panorama” baloratu, eta EH Bilduren aldeko botoa eskatu zuen Bidegurenek. Bere iritziz, Espainiar estatua geroago eta jarrera “autoritarioagoa, antidemokratikoagoa eta zentralistagoa” hartzen dabil.

EH Bildu aurkeztu dute “erabakitze-ko eskubidea” Madrilén defendatuko duen indar politiko modura.

'Euskal Herritik ez dira pasako! Faxistak kanpora' lelopean, hainbat gazte batu ziren Santa Anan

VOX Santa Ana plazan

VOX alderdi ultraeskuindarrak hauteskunde ekitaldia egiten zuen eguazten eguerdian Durangoko Santa Ana plazan. Haima bat ipinita, eskuorriak banatu zituzten.

Ekitaldi horrek erantzuna izan zuen arratsaldean. *Euskal Herritik ez dira pasako! Faxistak kanpora* lelopean, hainbat gazte batu ziren Santa Anako plazan.

2018ko Euskaraldian ahobizi zein belarriprest lez parte zuten abadiñarren ia %76 emakumezkoak izan ziren

Euskaraldian 795 abadiñarrek eman zuten izena; ekimenak Abadiñon izan zuen eragina aztertzen duen txostena aurkeztu du Euskaraldiak

ABADIÑO • A.M.

Herritarren hizkuntza ohiturak euskararen alde aldatzeko helburuz 2018an egin zen Euskaraldia ekimenak Abadiñon izandako eragina aurkeztu dute txosten batean. Ekimenean, 225.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten, tartean 795 abadiñarrek. Euskaraldiaren eraginkortasuna neurtzeko, Soziolinguistika Klusterrak I. Euskaraldia Ikerketa Proiektua landu zuen Eusko Jaurlaritzaren enkarguz.

Topaguneak eta Jaurlaritzak Euskaraldi berri bat antolatuko dute 2020an

Dokumentuak hainbat datu esanguratsu bildu ditu. Besteak beste, emakumeen nagusitasuna: Abadiñoko Euskaraldiko partaideen %75,9 emakumezkoak izan



2018an Abadiñon egin zen Euskaraldiaren aurkezpeneko argazkia.

ziren. Adin tarteari dagokionez, 35 urtetik 49ra bitartekoak izan ziren gehiengo (partaideen %48,3). Bestalde, erabilerari dagokionez, lagunartean eta familian eragin zuen gehien Euskaraldiak; eta ikaslekuan izan zuen eraginik txikiena.

Solaskideen gaitasuna kontuan edukita, hizkuntza ohitura aldatzeko handiena euskaraz erraz ulertzen dutenek bizi izan zuten.

Enpresak ardatz

2018ko ekimenaren harreraren on-

doren, 2020rako bigarren Euskaraldi bat antolatuko dutela jakinarazi dute Euskaltzaleen Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak; azaro-abendu bueltan egingo dela aurreratu dute, eta oraingo honetan hamabost eguneko iraupena izango du.

Aurrekoaren haritik, ahobizi eta belarriprest rolak izango ditu oinarrian, baina berritasun bat dute: *arigune* kontzeptua aurkeztuko dute; euskaraz eroso jarduteko espazioak dira, eta entitateen barruan zein kanpoan egon ahalko dira.

Datozen asteetan, Zaldibarko Udala neurriak hartzen hasiko da herriko puntu beltzak egokitze

Berdintasun Sailak hiru puntu beltz identifikatu ditu herrigunean; San Andres jaietarako konpontzea da helburua

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO
Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailean lanean dabilta herriko puntu beltzak idefintikatu eta hauek egokitze. Jose Luis Maiztegi alkatearen berbetan, horietariko hiru identifikatuta dituzte, eta arazoa "berehala" konpontzeko asmoa agertu du. Elizondo kalean, udaletxera bidean dagoen puntu beltza kentzeko, ispilu bat eta foku bat ipiniko dituzte. "Berehalako ekimena izango da", azaldu du Maiztegi. Elizondo kalekoa ez da izango Alde Zaharrean ipiniko duten argigune bakarra: eliza inguruetan eta Sanjoangoa etxean ere

Alde zaharrean, Olarreagako bus geltokian eta Aranguenan daude hiru puntu beltzak

ipiniko dute argia. "Bide batez, Alde Zaharrari beste itxura bat eman gura diogu. Gaez oso ilun dagoela iruditzen zaigu eta argitasun apur bat eman gura diogu", arrazoitu du alkateak. LED teknologia erabiliko dute, foku hauen inpaktu ekonomikoa "minimoa" izateko. Udalak 3.640 euro inbertituko ditu guztira hobekuntza hauek egiteko, eta lanak San Andres jaietarako egongo direla amaituta aurreikusen du alkateak.



Zaldibarko Alde Zaharra.

Beste puntu beltz biak konpontzeko, gehiago itxaron beharko dute. Hala ere, "datozen asteetan" egitea aurreikusten du Maiztegi. Olarreagako autobus geltokia da gune horietariko bat. Bestea Muelles Zaldia inguruetan dago, Aranguenako etxebizitzetan. Bietan

ere, argi fokuak ipiniko dituzte, guneak seguruagoak izateko.

Hirigunetik kanpora ere
Berdintasun Saileko kideak txosten osoa prestatzen ari dira, Maiztegi alkateak aurreratutakoaren arabera. Oraingoz, baina,

herrigunean gauzatuko dira ekimenak. "Neurri hauek hartzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Horregatik, txostena egin eta berehala hartu ditugu neurriok", azaldu du alkateak. Hurrengo pausoa auzoetako puntu beltzak identifikatzea izango da.

Garaiko Udalak hobekuntzak egingo ditu Zaldai errearen bazterreko errepidean

Bazter-babes bat ipini, eta bidegurutze batean pilatzen diren ur-masak konponduko dituzte



Garaitik lurretarako bidean egingo dira lanak.

GARAI • EKAITZ HERRERA
Zaldai errearen bide bazterretan, lurretarako bidean, konponketa bi egitea erabaki du Garaiko Udalak. Batetik, 150 metro luze izango den metalezko bazter-babesa ipiniko dute Momotioko San Juan baselizatik lurretara doan bidean, azken udalerrri honegaz dagoen mugan. Hesia metalezkoa izango da, baina egurragaz estaliko dute. Ibilgai-luen eta herritarren "segurtasuna areagotu" gura dute horregaz. Bestetik, lurretako mugan dagoen bihurtunean sarri ura pilatzen dela-eta, errepidea altxatu, hodi berria ipini eta konponketak egingo dituzte. Eguraldiak laguntzen badi, bost egunean amaituko dituzte lanak. Aurreikuspenen arabera, errepide zati hori itxita egongo da azaroaren 11tik 15era bitartean.

Hainbat ekimen eginda, Otxandion atea zabalduko diote aniztasunari

Besteak beste, domekan hainbat herrialdeetako jakiak dastatzeko aukera egongo da Kontseilupean

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Kultura desberdinen arteko bizikidetzat sustatzeko helburuz, Otxandio Udalak aniztasunaren inguruko hainbat ekimen prestatu ditu *Ireki begiak, besoak bihotza* leloagaz.
Esaterako, gaur, 19:00etan, *Sahara eta Kurdistan-etik Euskal Herrira* izeneko kontakizun musikatu batez gozatzeko aukera egongo da Otxandioko gaztetxean.

Domekan, kulturen topagune
Domekarako, kulturen arteko topagune bihurtuko den ekimena prestatu dute. Hainbat herrialdeetako pintxo eta jakiak dastatzeko eta musika entzuteko aukera egongo da. Ekimena Kontsei-

Eneko Atxak Espainiako Gastronomi Saria jaso du

ZORNOTZA • J.D.
Espainiako Gastronomi Akademiak 2018ko sariak banatu zituen, astelehenean, Madril en egindako ekitaldian. Gastronomi Osasuntsuaren alorreko saria Eneko Atxa sukaldari zorrotzarrari eman zioten. Gastronomiaren bitartez, gizarte iraunkorrago baten alde egindako lana aitortu gura izan zioten. Gastronomi Akademiak Atxa saritzen duen bigarren aldia da. 2015ean sukaldebururik onenaren saria jaso zuen.

Jon Onaindia hil da, 24 urtean lurretako abade izandakoa

IURRETA • JONE GUENETXEA
Iurretan 24 urtean abade izandako Jon Onaindia abadea hil da. Astelehenean hil zen, 87 urte zituela. Orain zazpi urte, elizak eta herriak omenaldia egin zioten. Jubilazioaren harira, ANBOTOK elkarriketatu egin zion. "Estimatzen naute eta ondo konpontzen naiz herritar guztiekin. Oso herrikoia naiz, horrelakoxea da nire izakera: zerbitzatza etorri nintzen, ez zerbitzatua izatera", azaldu zuen Onaindiak.

lupean egingo dute, 12:00etan. Bazkari bat ere egongo da gura duenarentzat. Bazkaritarako txartelak Fonda tabernan eskuratu daitezke.

'Sahara eta Kurdistanetik Euskal Herrira' izeneko kontakizun musikatu dago gaur Gaztetxean

Ekimen sorta egunean hasi zuten, Zaporeak elkarteak Gaztetxean eskainitako hitzaldi batez. Greziako Lesbos uhartean egondako boluntario talde batek han bizitako esperientziak kontatu zituen.



Eraz.

Hareek denporak!

UDALETXE BERRIA BOTA EGIN ZUTEN

Mañariko plazak itxura hau zuen 1998an. ERAZ aldizkariak bere 190. alean kaleratutako irudia da. Kotxeak plazan bertan aparkatu zitezkeen. Udaletxe berriaren egitura ere bertan zegoen, obrak noiz jarraituko zituzten zain. Eraikina 1996an hasi ziren eraikitzen, baina proiektua bertan behera gelditu zen, diru faltagatik. Gerora bota egin zuten arren, bere sasoiaren proiektu anbiziotsua zen. Hiru solairu zituen. Beheko solai-

ruan, osagilearen kontsulta, posta bulegoa, epaitegia eta turismo bulegoa ipini gura zituzten. Eta lehenengo solairuan, udaletxe berria. Goiko solairua libre utzi gura zuten, herrian antolatzen ziren ekintzetarako.

Sasoi hartan, eraikin horren azpian jaietako txosnak ipini zituzten. Azkenean, eraikina bota egin zuten, eta gaur egun inguru hori guztiz itxuraldatuta ikusi daiteke, umeei zuzendutako jolasguneagaz. J.G.

Durungaldea asteen

Dendak Bai elkarteak 25 bazkari eta afari zozkatuko ditu azaroako erosketetan

Durungaldea | Durango Txartelari atxikitako establezimenduetan egin behar dira erosketak. Erosketa bat sariduna izanez gero, tiketaren beheko partean *saria* mezua dagokion sariagaz batera agertuko da. Bale hau Durangoko Nafarroako Rural Kuxako bulegoan aurkeztu beharko da. Han txartel bat emango diote irabazleari. Jatetxe hauek parte hartzen dute: Akebasok, Gazteluak, Gran Hotel Durangok, Kobikak, Larrinagatzuk eta Plateruena Kafe Antzokiak.



Euskara eta Demografia Jardunaldia antolatuko dute Ibaizabal ikastolan

Durango | Jardunaldien antolatzaileek diotenez, "inguruko herrialde batzuk politika demografikoak bultzatzen ari dira aspalditik, baina Euskal Herrian ez da ezer nabarmenik egiten ari, eta egoera geroago eta larriagoa da". Bilkuran, demografiagaz lotutako gaiak landuko dituzte: jaiotza, balioak, emigrazioa, sexualitatea, erotismoa, familia, umeen hazkuntza, etab. Hainbat hizlarik parte hartuko dute Ibaizabal ikastolan: Imanol Esnaolak (Gaindegia), Eguzki Urteagak (EHU), Felix Rodrigo Morak (Revolución Integral), Iruñe Muguruzak (Jaurilaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaria), Adrian Zelaia (Ekai Center), Koldo Tellitut (Ikastolen Elkarte) eta Lurdes Imazek (EHIGE).



Berbaro euskara elkarteak taldean parte hartzeko Hirukoa galdera lehiaketa ipini du martxan, asteen

Durango | Berbarok Hirukoa lehiaketa abiatu du. Hiru asteen hiru laguneko taldean parte hartzeko lehiaketa da. Datozen hiru asteotan, hamabost galderako galdetegi erantzuteko proposamena egin du euskara

elkarteak. Astelehenero, aurkeko asteko erantzunak eta taldeen sailkapena argitaratuko dituzte. Punturik gehien lortzen duenak Errigorako saski eder bat irabaziko du. Berbaroren 30. urteurrena dela-eta antolatu du-

te lehiaketa. Durangaldeari, kultura orokorrari eta beste hainbat konturi buruzko euskarazko galdera lehiaketa egitea da helburua, eta lagun artean ondo pasatu eta pike apur bat sortzea. Informazio gehiago: berbaro.eus.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHA
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



GERARDO SANZ

‘La zanja’

ANTZERKIA

BERRIZ :: Azaroak 9

Amerika eta Europa parez pare

Titzina Teatroren obrak Pizarro aurkitzailearen eta Atahualpa azken errege inkaren arteko topaketaren kronikak ditu oinarri, eta mendebaldeko multinazionalen eta Peruko komunitate natiboen arteko meatze gatazkak abiapuntutzat hartuta, kultura sustrai eta arbasoei buruz berba egingo digu. Umorez eta emozioz betetako trama dinamikoa da. 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Azaroaren 8an

ABADIÑO antzerkia
‘Escúpido amor’ (Aitziber Izquierdo), 20:00etan, Errota kultur etxean. Antzerkiño egitarauaren barruan.

IURRETA musika
Flautarp, flauta eta harpa duoa, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Musikaldia egitarauaren barruan.

IURRETA ipuinak
Haurrentzako ipuin kontalaria: ‘The Messy playroom’ (Kids&Us), 18:00etan, liburutegian. 1-3 urteko umeentzat, heldu batek lagunduta.

MAÑARIA jolasak
Familian euskaraz olgetan, 18:00etatik 19:00etara, liburutegi zaharrean. Euskararen erabilera sustatzeko programa, 3-5 urteko umei zuzenduta. Izena emateko gazteak@berbaro.com posta elektronikora idatzi daiteke edo 94 620 25 40 telefonora deitu.

ZORNOTZA
Luis Urrengoetxeako jaiak
Txistulariak, 19:00etan.
Mus txapelketa, 20:30ean, Donibanen.
Igel txapelketa, 21:00etan, Far-farreko arkupean.
Txupito gaua, 21:30ean.
Musika: Kittu, 22:00etan. LUTABER elkarteak antolatuta.

Azaroaren 9an

ABADIÑO antzerkia
‘El color de la leche’ (Solo Teatro), 19:00etan, Errota kultur etxean. Antzerkiñoen barruan.

DURANGO antzerkia
‘Quitamiedos’ (Kulunka Teatro), 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika
Charlie Parker with Stringts, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian. Jazz taldeak Musika Hamabostaldiaren barruan joko du.

ELORRIO irteera
Aralarko Malloak mendilerrora irteera, Erdella mendizale taldeak antolatuta. Informazioa: erdellamt@erdellamt.com posta elektronikora idatzita edo 946 582 179 telefono zenbakira deituta.

ZORNOTZA
Luis Urrengoetxeako jaiak
Umeentzako jolasak: puzgarriak, egur jokoak eta aurpegi margoketa, 10:30etik 14:30era, Euskal Herria plazan.
Zumba saioa, 12:00etan.
Trikitilariak, 13:00ean.
Sukalkiaren aurkezpena, 14:30ean (sari banaketa, 15:00etan).
Elektrotzaranga, 18:00etan.
Josetxu piperrak & The Riber Rock Band + The Bon Scott Band (AC/DC tribute band), 21:30ean, Zelaieta parkean. LUTABER elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA
Luis Urrengoetxeako jaiak
Umeentzako jolasak: puzgarriak, egur jokoak eta aurpegi margoketa, 10:30etik 14:30era, Euskal Herria plazan.
LUTABER errifaren zozketa, 15:00etan. LUTABER elkarteak antolatuta.

Azaroaren 11n

DURANGO berbaldia
Aniztasunaren Eskola: ‘Discursos alternativos al rumor’, 18:30ean, Elkartegian. Hizlaria: Asier Gallastegi.

Azaroaren 12an

DURANGO zarzuela
‘Dona Francisquita’ zarzuela zuzenean (HDn), 19:45ean, Zugaza zineman.

ZORNOTZA zinekluba
KINE zineklub: ‘El despertar de las hormigas’ (Zuz.: Antonella Sudasassi Furniss-Costa Rica), 20:15ean, Zornotza Aretoan. Zineforuma egingo da 18:45etik 19:45era.

Azaroaren 13an

ABADIÑO ipuinak
Doro Zobarán, 17:00etan, Mediatekan.

ELORRIO dokumentala
Hileko dokumentala: ‘What Walaa wants’, 19:30ean, Iturri kultur etxean.



STUART BLYTHE

Nikki Hill

MUSIKA

DURANGO :: Azaroak 15

Nikki Hill abeslari estatubatuarra arituko da Plateruena kafe antzokian, hurrengo barikuan. *Feeling Roots* bi-raren barruan eskainiko du kontzertua, 21:30ean.

Rámpér Arriola antzokia

ANTZERKIA • Rámpér pailazo xelebre bat izan zen, 20ko hamarkadatik 50ekora bitartean gerra zibilean murgildutako Espainian arrakasta izan zuena, umorearen eta ikuskizunaren historiako pertsonaia liluragarria. Beste ezeren aurretik, hari egindako omenaldia da gaur Arriolan taularatuko den obra: *Rámpér, vida y muerte de un payaso*. Cancamisa Teatroyen eskutik, 20:30ean.



Josetxu piperrak & The Riber Rock Band eta Bon Scott Band

MUSIKA | Zornotzako Luis Urrengoetxea kalean jai giroan murgilduta daude. LUTABER elkarteak antolatuta, umeentzako jolasak, sukalki lehiaketa eta musika egongo dira, besteak beste, datozen egunetan. Josetxu piperrak & The Riber Rock

Band taldeak joko du, bihar, azaroaren 9an. Kontzertua Zelaieta Parkean izango da, 21:30ean, eta The Bon Scott Band taldea ere igoko da oholtzara. AC/DC talde australiarrari omenaldia egingo diote eskainitako kantekin.

Azaroaren 14an

ELORRIO musika
Mocker's, 21:30ean, Ateneoan. Arriolako XXX. Jazz Blues Jaialdia.

DURANGO berbaldia
‘Denbora neurtu astroen bitartez’, 19:00etan, Pinondo Etxean. Izarra elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA musika
The Reverend Shawn Amos, 20:15ean, Zornotza Aretoan. Musika Gertu egitarauaren barruan.

ZORNOTZA jardunaldia
‘Energiaren kostuaren optimizazioa’, 10:00etatik 14:00etara, Zelaieta zentroan. Urkiola eta Lea-Artibai Landa Garapenerako elkarteak.

Azaroaren 15ean

BERRIZ antzerkia
‘Ulises’ (Gorakada), 18:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO musika
No-Land Trio, 22:30ean, Ateneoan. Arriolako XXX. Jazz Blues Jaialdia.

IURRETA musika
Xixili quartet, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Musikaldia egitarauaren barruan.

ZORNOTZA antzerkia
‘Izoztutako haize bezala’ (Tanttaka Teatroa), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 11tik 22ra arte

IURRETA izen-ematea
XXVIII. Kultur Astean antolatutako bazkarirako eta karta txapelketarako izena ematea, 11:00etatik 13:00etara. Goiuriko Ama elkarteak.

Azaroaren 22ra arte

BERRIZ erakusketa
‘Munduko talderik onena, Athletic-en istorioak’. Barikuetan, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean. Asteburuan ere bai, kultur jardueren ordutegian.

Azaroako agenda



8

IU GAZTE ETXEGO
17:00 Just Dantz & Euskaraokea
Haurrentzako ipuin kontalaria
18:00 KIDS&US: V "The Messy playroom" (1-3 urtekoak, lagunduta).
Musikaldia 2019 Ibarretxe Kultur Etxea.
19:00 Flautarp flauta eta harpa duoa. *Sarrera gonbidapenagaz.*

11

22

GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA
XXVIII. Aste Kulturala
11:00 - 13:00 Bazkaria eta karta txapelketa: azaroaren 29an eta 30ean. Izen-ematea azaroaren 11tik 22ra.

12

Iurretako Herri Biblioteka
17:00 Irakurketa kluba *La hija extranjera* / Najat El Hachmi
18:30 Irakurketa Kluba *Mari mutil handi baten bluesa* / Leslie Feinberg

13

XL kluba
Iurretako Herri Biblioteka
10:00 XL. irakurketa kluba
17:00 Paperezko hegoak (LH 3. maila)
18:00 Paperezko hegoak (LH 4. maila)

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Asto erregea**
barikua 8: 18:15
domeka 10: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Ventajas de viajar en tren**

barikua 8: 19:30/22:00
zapatua 9: 19:30/22:30
domeka 10: 18:30/20:30
astelehena 11: 18:30/21:00
martitzena 12: 17:00/20:00
eguzartena 13: 17:30/20:00

• **El hoyo**

barikua 8: 19:30/22:00
zapatua 9: 19:30/22:30
domeka 10: 18:30/20:30
astelehena 11: 18:30/21:00
martitzena 12: 20:00
eguzartena 13: 20:00

• **La trinchera infinita**

barikua 8: 19:30
zapatua 9: 19:30/21:45
domeka 10: 19:30
astelehena 11: 18:30
eguzartena 13: 20:00

• **La familia Adams**

zapatua 9: 17:30
domeka 10: 17:15
• **Granjaguedom**
zapatua 9: 17:00
domeka 10: 16:30

• **Abominable**
zapatua 9: 17:00
domeka 10: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Parásitos**

zapatua 9: 22:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:00

• **Alfonbra magikoa**

domeka 10: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Elkano Lehen Mundu Bira**

zapatua 9: 17:00
domeka 10: 17:00
• **Sorry we missed you**
zapatua 9: 19:30 / 22:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:15

Azaroaren 24ra arte

IURRETA lehiaketa
ZALDAI mendi argazki lehiaketa. Argazkiak zaldai@hotmail.com helbidera bidali daitezke. Sariak: 1: 150 euro, 2: 100 euro eta 3: 50 euro. Oinarriak: www.zaldai.eus

Azaroaren 28ra arte

DURANGO erakusketa
‘Open Itinera FIG Bilbao’. Arte grafikoko 30 artistaren lanak, Arte eta Historia Museoa. Tartean, Durangon bizi izandako Rebeca Ferreroren, Costa Ricako Priscilla Romeroren eta Bilboko Juan Escuderoren lanak.

'Open Itinera' erakusketa ikusgai dago Durangoko Arte eta Historia museoan

Goraka doan arte grafikoko nazioarteko 30 artistaren lanak erakutsiko dituzte azaroan



'Open Itinera' erakusketaren aurkezpena.

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Open Itinera erakusketa ibiltaria Durangoko Arte eta Historia museoaren eta FIG Bilbaoren kolaborazio berri batetik sortu da. Bilboko Paper gaineko Artearen eta Grabatuaren Nazioarteko jaialdiak bultzatu du erakusketa hau, arte grafikoa sustatzeko. Euskal Herriko zein nazioarteko 30 talentu berrien lanak egongo dira ikusgai. Besteak beste, Durangon bizi izan zen Rebeca Ferreroren, Costa Ricako Priscilla Romeroren eta Juan Escudero bilbotarraren lanak ikusi ahaliko dira.

Bestalde, Irati Retolaza artistak, erakusketan lan bat edukitzeaz gainera, tailer bi eskainiko ditu, azaroaren 20an eta 23an. Lehenengoan, grabatuaren teknikak azalduko ditu; 23koan, oster,

torkuluagaz esperimentatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Tailerrean parte hartzeko, aurretik izena eman beharko da, museoan bertan, edota bertara deituta edo idatzita. "Horrelako tailerrak aukera bikaina izaten dira obra ezagutzeaz gainera, artista bera ezagutzeko eta nola lan egiten duten ikusteko", nabarmendu zuen aurkezpenean David Arteagoitia Open Portfolioko zuzendariak.

Irati Retolaza artistak tailer bi eskainiko ditu museoan, azaroaren 20an eta 23an

2018an, Durangoko Arte eta Historia museoak eta FIG Bilbaok

Margolan Itzuliak erakusketa antolatatu zuten elkarregaz. *Open Itinera* erakusketa ibiltaria Barakaldora eta Gueñesera eramango dute Durangotik. Bestalde, FIG Bilbao jaialdiaren zortzigarren edizioa azaroaren 14tik 17ra izango da Bilboko Euskalduna Jauregian.

Nazioarteko jardunaldiak

Horrez gainera, Durangoko Krimenaren Historiako Zentroko XVII. Nazioarteko mahai-ingurua hasi zen atzo, eguna. *Ema-kumea eta delinkuentzia historian* zehar izango da jardunaldi honen izenburua. Generoak eta delinkuentziak duten harremanaz eztabaidatuko eta hausnartuko dute. Hamazazpigarren edizioa dute jardunaldiek.



Xixili Quartet.

Flautarp-egaz hasiko da Iurretako musikaldia, gaur

Flautarp bikoteak zabalduko du zikloa, 19:00etan, Ibarretxan

MUSIKA • A.M.

Roberto Casado flautistak eta Juan Ramon Hernandez Leiva harpa-jotzaileak osatzen dute Flautarp. Zortzi piezako ordubeteko emanaldia eskainiko du bikoteak, 19:00etan hasita.

Bigarren emanaldia azaroaren 15ean izango da. Xixili Quartet laukoteak kontzertua eskainiko du, 19:00etan. Durangaldeko kideek osatzen dute laukotea: biolinista bik, biolontxelista batek eta biola-jotzaile batek.

Emanaldi bikoitza

Azaroaren 28an emanaldi bikoitza egongo da Ibarretxan. Goizean, 11:30ean hasita, Juan Oro-

biogoiatiako ikasleentzat *Peer Gynt* drama liburuan oinarrituriko musika ikuskizuna egongo da. Durangoko Gehi Zazpi biolontxelo taldeak itxiko du zikloa. *Tutto Opera* ikuskizunagaz egingo dute hori. Kontzertu berezi honetan, opera ezagunetako zatiak interpretatuko dituzte. Mozarten *Txi-rula Magikoa*, Bizeten *Carmen*, eta Wagnerren *Tannhäuser* joko dituzte, besteak beste; moldaketak Irati Ortubia biolontxelo irakasleak egin ditu. Ikuskizun guztietarako sarre-rak doakoak izango dira. Hala ere, gonbidapenak aurretik jaso beharko dira, kultur etxean bertan.

'Escupido amor' lanak zabalduko du Abadiñoko Antzerkiño antzerki zikloa

Jaialdiaren bosgarren edizioa hasiko da gaur. Bost antzezlanek osatzen dute egitaraua

ANTZERKIA • A.M.

"Kalitatezko antzerkia prezio ia sinbolikoetan eskaintzen jarraitu gura dugu", adierazi du Argi Abad kultura arloko zinegotziak Abadiñoko Antzerkiño jaialdia aurkezteko. Bosgarren urtez, zenbait antzezlan eskainiko dituzte Errota kultur etxean, abadiñarrek gozatu ahal izateko. "Antzerkiak esperientzia berriak eskaintzen ditu beti, eta

Vaiven konpainiaren 'Erlauntza' komedia azaroaren 17an izango da, 19:00etan

batzuetan ahaztezinak", animatu ditu herritarrek Abadek.

Escupido amor lanak emango dio hasiera zikloari, gaur. Azaroa-

ren 9an, Solo Teatro konpainiako kideek *El color de la noche* obra antzeztuko dute. Bestalde, azaroaren 10ean, Coles konpainiak *La tia Rosita* lana eskainiko du, eta hilaren 16an, *Madres y pasotas* lana taularatuko dute.

Azaroaren 17an, *Erlauntza* obrak itxiko du zikloa. Vaiven konpainiaren komedia garratz hau 19:00etan hasiko da.



'Erlauntza'.



Estetika
gida

anboto

Ile-apaindegia



NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Belardenda eta dietetika

OSASYN – ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA

EGUNA: Azaroak 11



Zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajeak **DOAN EBALUATUKO DITUGU**

ANIMATU ETA ZATOZ GU EZAGUTZERA!

Ermodo kalea,13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.:688 730 694-osasunetxea@hotmail.com
Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia



Salón de belleza
M^a Jesús Luque
UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO
☎ 946 81 43 89



Nukleo
Amaia Salazar

Kolore gorri, laranja eta arreen amalgamak gure basoak jantzi ditu azken asteotan. Udazkena bizi-bizi dago paisaian, eta herritarren joan-etorrian ere igartzen da hori. Elorrioko Nukleo ile-apaindegiak udazken honetarako gomendio eta proposamenak dakartza besapean.

Udazken honetan, zein da tonu aproposa ilea tindatzeko?

Kobre tonua duten koloreak bereziki oso indartsu datoz. Gainera, kolore libreak direnez, joko handia ematen dute norbere neurrirako kolorea lortzeko. Metxak eginda eta koloreek

eskaintzen dituzten ñabardurak baliatuta, tonu laranjak, gorrixkak eta urre ukitukoak lortu daitezke.

Zeintzuk dira uneotan joera diren orrazkerak?

Ilea labur eramaten dutenen artean, garondoko eta kopetako ilea luzatzeko joera dago. Tamaina ertaineko meletak ere boladan daude.

Zein da NUKLEOren ustez, orain egiteko tratamendu edo tindatze aproposa?

Dudarik barik, ilea jaustea ekiditen duten tratamenduak. Ez diogu jaramon handirik egiten, udazkenari lotutako zerbait izaten delako, baina bitamina batzuk ematea komeni da, ileak indarra hartu dezan. Bestela, ilea ez da bere osotasunean egongo.



“Musikagaz kaleak girotu gura dituen 16 urtetik gorako edozein herritarrek du lekua Fanfarrixon”

Orain 20 bat urte desagertu zen Elorrioko banda. Orain, lagun talde batek hutsune hori betetzea erabaki eta txaranga bat sortu du Elorrioko Musika Eskolaren eta udalaren laguntzagaz. Domeketan batzen dira, hamabostean behin

TXARANGA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Musika tresnei hautsa kendu eta musika hotsa Elorrioko zein Euskal Herri osoko kaleetara zabaltzeko asmoz, lagun talde batek Fanfarrixo txaranga sortu du Elorrrion. Egun, hamabi lagun dabilta taldean, eta taldeko zuzendari Leire Balerdik ANBOTOrri azaldu dionez, eurena "hutsetik" sortutako taldea da. Eurek aukeratu dituzte izena, janzkera eta abar.

Nondik dator txarangaren ideia?

Orain 20 bat urtera arte, banda bat zegoen Elorrrion. Baina garai hartan taldea desegin egin zen, eta harrezkero ez da ezer egon herrian. Denok sentitu dugu inoiz banda baten falta herrian, baina inork ere ez dugu ezer egin, lagun talde bati txaranga sortzea otu zitzaion arte. **Zelakoa izan da hasiera?**

Hasiera guztiak oso zailak dira. Antolakuntza oso konplikatu zenez, elkarte berri bat sortu, eta lokal berri bat lortu eta egokitu behar zen, besteak beste. Musika-iririk gehienak Elorrioko musika eskolan ibilitakoak zirela konturatu ziren, eta, beraz, taldeari musika eskolagaz zelanbaiteko lotura bat ematea erabaki zuten. Bertako zuzendariagaz berba egin zuten, eta baiezkua jaso ondoren abenturari ekitea erabaki zuten. Herrian deialdi zabal bat egin zuten.

Zu horrela batu zinen taldera?

Nire ahizpa ere ibili zen taldea antolatzen, eta taldera batzeko asmoa nuela esan nion. Gustura hartuko nindutela esan zidan ahizpak, eta taldeko zuzendaria neu izango nintzela esan ziotela. Horrelaxe batu nintzen.

Elorrrion jo duzue, baina baduzue asmorik kanpora irteteko?

Oraingoz birritan jo dugu herrian, eta urtea amaitu baino lehen beste

birritan jotzea da gure asmoa. Baina, noski, hori dena martxan ipini, eta deitzen badigute izango da. Txaranga hau zerbitzu baten moduan ikusten dugu, eta, beraz, hasieran Elorrrion jotzea eta ondoren behar den lekura joatea da asmoa. Ez dugu mugarik ipini gura. **Birritan irten zarete kalera. Zelako esperientzia izan da?**

Ona. Hasieran, perkusio aldetik ez geneukan bonborik. Orduan, utzi ziguten bateria bategaz ibiltzen ginen hara eta hona. Baina txaranga batek mugitzea behar du, eta bonbo bat erosi genuen. Orain, bonbo horregaz gabilta. Hala ere, jende faltan gaude, eta nik zeharkako txirula jotzen dudana arren,

"Mmusika eskolaren eta udalaren laguntza gabe ezinezkoa izango zen taldea aurrera ateratzea"

txarangan bonboa jotzen dut, eta perkusionistak kaja. Elkarren osagarri gara eta bateria baten lana egiten dugu.

Jende bila zabilzate?

Txaranga batean zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto. Beraz, gura dutenei, taldera batzeko gonbita egiten diegu. Musikagaz kaleak girotu gura dituen 16 urtetik gorako edonork du lekua Fanfarrixon. Interesa duenak jakin dezala domeketan egiten ditugula entseguak, hamabostean behin.

Bestarik gehitu gura duzu?

Eskerrak eman gura dizkiogu musika eskolari eta Elorrioko Udalari, euren laguntzarik barik ezinezkoa izango litzatekeelako taldea aurrera ateratzea. Eta herritarrei, ba, datozela gu ezagutzera. Txaranga handitzen bada, gu pozartzen.



Gai librea

Libe
Mimenza Castillo
Kazetaria



A eta B

Oihalezko poltsa lepoan hartuta, fruta-dendatik irten da A. Orduan-txe sartu da B. Elkar ezagutzen dute. Ez hainbeste. Nahikoa begirada zorrotzez elkar epaitzeko. Bi emakume. A eta B.

A. Haurdun dagoela dakienetik dauka herri osoa begira. Denak bere bularren transformazioaren lekuko. Sabelaren mutazioaren zain. Edan gabeko garagardoen brigada polizial. Kolektibo egin aurretik aktibatzen da kontrola. Begiak, belarriak eta mihiak dantzan. Intimoa bezain publikoa egia. A-k badaki. Ez zaie deus inporta gaur egungo elikadura eredu hiper kutsatuak eta super higie hipokondriakoak eragindako jakien ukazio zerrenda nola bizi duen, edo ama onena izateko erlijio garaikidean izena emateko presioaz zer uste duen: urdaiazpikoa izoztu-kirola egin-tesi bat idazteko beste irakurri. A-k segurtasun bakarra dauka: herri osoak izango du bere haurdunaldiaz edozer eta edozelan esateko atrebentzia.

B. Bakarrik bizi denetik dauka herri osoa begira. Pluralean bizitzeko egin den mundu honetan aditzarekin singularrean dantzan. Erruduntasun frogatzen. B-k badaki. Ez dakiena da jaio zenean zituen bi milioi obulu zifrari zenbat zero geratzen zaizkion gaur. Ez daki erabili nahiko dituen. Ez daki noiz erabakiko duen. Ez daki zergatik ez duen inork ezbaian jartzen zer zentzu daukan gainpopulatutako planeta honetan norbere oinordeko biologikoak erreproduzitzeak. B-k segurtasun bakarra dauka: ingurukoek ama izatea erabakitzean gainontzekoak ere geratzen dira apur bat haurdun, baita amatasunaren iraungitze biologikoaren arora fundamentuzko orgasmo ez erreproduktiboak agenda batean zerrendatzen dituela igaro den bera ere.

Biolentziaren beste bi aurpegi. A eta B. Erosketa berbera fruta-dendan: mandarinak eta normaren antinorma izateko ausardia. Horra hor iraultza.

Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Gremioen gida

anboto



Elektrizitatea

MARKIEGI

**ARGIZTATZEN
JARRAITZEN DUGU!**

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com



Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 Iturgintza

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak
ABADIÑO 944 071 791

 Zurgintza

ATERPE AROZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Eraikuntza eta
birgaikuntza

ARRETXE GESTION
ERAIKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZA

TKALETAK - TKOLOAK
FATKADAK - BASEARRIAK
ETKEBIZITZAK - TEILATUAK
NABEAK - ERATSEETAK
INPERMEABILIZAZIOAK
MARMOGINTZA - HARAGINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOAK

WWW.ARRETXEGESTION.COM
INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORROTZA / BIZKAIA



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**





**Martin Urrutia
Barrueta**
Eskalatzailea
Elorrio | 1999

“Usobiagaren, Larrionen eta Ondraren ondoan nire izena gehitzea berezia da”

Arabako Gaubea herri inguruan 9a kalifikazioa duen 'Psikoterapia' izeneko eskalada bidea osatzea lortu du Martin Urrutia 19 urteko elorriarrak

ESKALADA • JOSEBA DERTEANO

2002an bidea zabaldu zutenetik, hona, lau eskalatzailek baino ez dute lortu 'Psikoterapia' bidea igotzea: Patxi Usobiagak, Iban Larrionek, Adam Ondrak eta Martin Urrutiak. Eskaladaren munduko izen handiei berea gehitu die elorriar gazteak.

Aspalditik buruan zeneraman igoera izan da?

Zonalde horretan askotan eskalatzen dut, eta Psikoterapia hango biderik inponenteena da. Gainerako bide ia denak eginda, probatu nezakeela pentsatu nuen.

Zelakoa da bide hori?

Igoera laburra da, 16 metro inguru

ditu. Helduleku txikiak eta pasabide gogorrak ditu. Oso eskalada intentsoa da. 9a graduko bideak luzeagoak izaten dira, atsedean hartzeko tokiak izaten dituzte, baina Psikoterapiak ez du modurik ematen arnasa errekuaratzeko.

Zure lehenengo saiakera izan da?

Ez, hile bitan bide horretan entrenatzen aritu naiz. Bideei aurre egiteko hiru modu daude eskaladan: ezelango informazioak barik ahalegintzea, besteek kontatutako informazioagaz igotzea, eta bertan askotan entrenatu eta gero egitea ahalegina. Nik azken hori egin dut.

Bide hori eskalatzea lortzen duen laugarren pertsona zara eta aurreko hirurak ez dira edonor: Patxi Usobiaga, Iban Larrion eta Adam Ondra.

Bide horrek oso izaera berezia du eta uste dut horrexegatik ez duela jende gehiagok igo. Edozelan ere, Usobiagaren, Larrionen eta Ondraren ondoan nire izena gehitzea berezia da, jakina.

Euskal Herritik kanpora non eskalatu duzu?

Urrunen eskalatu dudana tokia Kanadako Mendi Harritsuetan izan

da. Orain hiru bat urte izan zen. European, Greziako Kalymnos irlan egon naiz. Eskaladarako oso toki ezaguna da. Italian, Suitzan eta Katalunian ere ibili izan naiz.

Toki horietako zein bide aukeratu zenuke?

Kataluniako Margalef herriaren inguruan daudenak asko gustatzen zaizkit. Herria bera oso polita da, bide asko daude eta haiek eskala-

tzeko behar den teknika asko gus-tatzen zait. Oso igoera atseginak eta entretenigarriak dira.

Baduzu buruan beste erronkaren bat aurrera negira?

Oraingoz ez. Ez dut erronka gogor-gogorrik gura apur batean. Lasaiago ibiliko naiz, Mugarra inguruan, Baltzolan...

Mugarra inguruan ibiliko zarela diozu. Atxarte baino gurago duzu?

Mugarran bide gogortxoagoak daude. Atxartekoak eskola zaharreko igoerak dira, apur bat etzanagoak eta helduleku onekin. Mugarran, oster, igoera bertikalagoak daude eta aproposagoak dira zailtasun handiagoa bilatzen dutenentzat.

Notzuk dira zure eskalatzaile erreferenteak?

Adam Ondra mito bat da. Seguruenik historiako eskalatzaile onena da, eta pertsona lez umila. Alex Megos alemaniarra ere hor dago. Nire moduan igoera laburrak eta helduleku txikiak egiten ditu, eta asko gustatzen zait.

Asteburuan, Espainiako Eskalada Txapelketa lehiatu zenuen Iruñeko Rokopolis zentroan. Zelan joan zen?

Ez gura bezain ondo. Eskalada kirol olinpikoa izango da lehenengoz Tokion. Hara begira, hiru eskalada modalitate konbinatu dituzte. Abiadurakoan ez nintzen ondo moldatu, ez dudalako asko lantzen. Boulder eta zailtasunean finalerdietara heldu nintzen. Espainiako Kopako proba bietan finalera sailkatu nintzen eta txapelketan gehiago itxaroten nuen.



Martin Urrutia 'Psikoterapia' bidea igotzen.

hitz liburutenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburutenda.com

#salduenak

7 ^a BASA Miren Amuriza (Elkar)	2 ^a ETXEAK ETA HILOBIAK Bernardo Atxaga (Pamiela)	3 ^a HEZURREN ERRETURA Miren Agur Meabe (Susa)	4 ^a LISIPE, lehenengo etarrak Uxue Alberdi (Susa)	5 ^a IRAUTERA Castillo Suarez (Elkar)
--	---	---	---	--

katerin ardoak
iñaki uribe
25^{unte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardogia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Berrizko futbol taldea osatu zuten emakumeak eguaztenero entrenatzen hasi dira berriro

Neska gazteak futbolera animatzeko, garai bateko emakume futbolariak lagunarteko partidu bat jokatu zuten Berrizburun



Orain 20 urte irabazitako liga gogoratzeko jokatu zuten partiduko irudia.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Berriz futbol klubak emakumeen taldea berreskuratu gura du, eta abiapuntu interesgarria aurkitu dute aurten gaia gizarteratzeko: 20 urte bete dira orduko emakumeen taldeak Bizkaiko liga irabazi zutenetik. Urteurrenaren harira, urri hasieran Berrizko taldean ibilitako hainbat futbolari batu ziren Berrizburun, eta, talde bitan banatuta, elkarren kontrako partidua jokatu zuten. "Gaia herrian gizarteratzea zen helburua. Sasoi batean, Berrizen emakumeen taldea izan zela

eta zuzendaritzak hori berreskuratzeke gogoia duela adierazteko moduan izan zen", azaldu du Ainara Arratibel zuzendaritza kideak eta futbol taldeko jokalariei ohiak.

Bizipen atsegina izan zen jokalarientzat, eta jarraipena ematea pentsatu zuten. Orain, eguaztenero elkartzen dira Berrizburun entrenatzeko. "Ahal dugunok batzen gara; batzuetan hamabi, eta bestetan zortzi. Orain arte ez nituen denak ezagutzen, batzuk nire ostean ibili zirelako. Talde polita osatzen dugula esango nuke", adierazi du

Arratibelek. Gabon inguruan lagunarteko partidu bat antolatzeko asmoa dute.

Harrobia eta ikasgela

Emakumeen taldea sortu ez ezik, egon diren zuzendaritzek ahalegin berezia egin dute azken urteetan harrobia indartzeko. Gurasoen elkarreagaz elkarlanean, eskola kiroleko umeak Berrizburun elkartzen dira orain, eta umetatik arnasten dute klubeko giroa. Hala dabilta harrobia sendotzen. Asteko egun batzuetan Berrizburun haur asko

elkartzen direnez, ikasteko gela bat zabaldu zuten iazko denboraldian. Gelan, mahaiak, aulkiak eta ordenagailu bat ipini zituzten. Horrela, gura izanez gero, etxeko lanak egiteko aukera dute haurrek.

Euskara sustatzea da zuzendaritzaren beste lehentasunetariko bat. Esaterako, klubeko ohar denak euskaraz bidaltzen dituzte lehenengo.

Azkenik, gurasoen laguntza eskertu dute, askotariko ekintzak aurrera eramaten emandako laguntasunagatik.

Olazar pilota txapelketako final-laurdenak hasiko dituzte Zaldibarren

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Afizionatu mailako pilotaririk onenak batzen dituen Olazar pilota txapelketa fase erabakigarrian sartzerara doa eta datorren astetik aurrera final-laurdenetako kanporaketak hasiko dituzte. Azaroaren 14an, 21:30ean, lau t'erdiko eta binakako partidu bana egongo da Zaldibarko pilotalekuan. Kaiolan, Aingeru De la Fuente eta Iosu Olaetxea nafarrek neurtuko dituzte indarrak. Binaka, Iraitz Zubizarreta gipuzkoarrak eta Joseba Sarasa nafarrak Unai Matak eta Josu Iruritak osatutako bikote nafarraren aurka jokatuko dute. Partidu hauetako irabazleak finalerdietarako sailkatuko dira. Finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte.

Baque Cycling ziklismo taldeak Mikel Agirrebeitia zornotzarra fitxatu du

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Mikel Agirrebeitia zornotzarrak lehenengo denboraldia egingo du Baque Cycling taldean, 23 urtez azpiko mailan. Orain arte, Ekin-SC Amorebieta taldean ibili da. Agirrebeitiak postu bikainak lortu zituen joan zen denboraldian. Euskal Herria Torneoan zortzigarren postuan amaitu zuen eta Espainiako Kopako lasterketa batean zazpigarren tokian sailkatu zen.

Asteko kirolaria



JON MUNITXA ARRINDA

Abadiño, Txirrindularia

Jon Munitxa Eiser-Hirumet taldeko txirrindulari abadiñarrak bizikletarako apustua egin du aurten. Urtea ziklo-kroseko denboraldia presta-

“Nerbioak kontrolatzea lortu eta etxeko lasterketan proba ona egin gura nuke”

Jon Munitxa abadiñarrak denboraldiko lehenengo podiuma lortu du Berrizen

tzeko hartu du, eta denboraldi ona egiteko esperantza du.

Asteburuan, denboraldiko lehenengo podiuma lortu duzu Berrizen. Pozik zaude lortutakoagaz?

Bai. Orain arte ez zaigu karrera onik irten, eta ematen du apurka-apurka bagoazela aurreruntz. Gainera, Durangaldean, lagunekin, bigarren postua lortzea pozgarria da.

Astebete lehenago, Elorrioko ziklo-kros proban eroriko bat izan zenuen. Guztiz osatuta heldu zinen Berrizko lasterketara?

Egia esan, hasieran ez nuen asmorik Berrizen parte hartzeko. Gure intentzioa Katalunian jokatu ziren nazioarteko lasterketetara joatea zen. Baina Elorrioren jausi egin nintzen eta eskua bihurritu nuen. Igeltsua ipini zidaten, eta, eskua guztiz ondo ez neukala kontuan

hartuta, Kataluniara joan beharrean Legazpian eta Berrizen parte hartzea erabaki genuen. Eskua benda bategaz lotuta irten behar izan nuen, baina lasai nago eskua hobeto neukala ikusita.

Oraintsu hasi berri duzue ziklo-kros denboraldia. Gustura hasieragaz?

Badakit inoiz baino hobeto gaude la, baina, bata dela edo beste dela, ez naiz ondo ibili lasterketetan eta espero baino makalago nago.

Entrenamenduetan emaitza onak izan ditut, baina lasterketetan ez. Hala ere, ematen du apurka-apurka badoala gorputza soltatzeko eta karreretara egokitzeko.

Zein da denboraldiko zure helburu nagusia?

Nerbioak kontrolatzea lortu eta etxeko lasterketan proba ona egin gura nuke. Gainera, Abadiño ziklo-kros proba nazioartekoa da eta lan txukuna egitea gustatuko litzaidake. Begiz jota ditut baita ere, Lezaman jokatuko den Euskadiko Txapelketa, Garaiko Bizkaiko Txapelketa eta Pontevedrako Espainiako Txapelketa. Horrez gainera, abendu amaierara ere ondo heldu gura nuke, Belgikara joango gara eta.

Durangaldeak mundu mailako lasterketa berria izango du 2020an: junior mailako nesken kopa

Datorren urteko maiatzaren 16an eta 17an izango da, eta etapa bana jokatu da Abadiñon eta Iurretan



Junior mailan dauden txirrindularirik onenak ikusteko aukera egongo da Durangaldeko errepideetan.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herrian zein estatuan sekula ere antolatu ez den lasterketa baten lekuko izango da Durangaldea 2020an. Nesken junior mailan, nazioen arteko kopako jardunaldi bat hartuko du.

Maiatzaren 16tik 17rako aste-buruan izango da, Bizkaikoloreak izenagaz. Oraindino ibilbideak zehaztu barik daude, baina antolatzailerik aurreratu dutenez, egun bakoitzean lasterketa bat antolatuko dute; bata Abadiñon hasiko da, eta bestea, Iurretan.

Nazioarteko Txirrindularitza Federazioak (UCI) emakumeen kopako egutegia handitu du: bost proba barik zazpi izango ditu hurrengo urtean. Abagune hori ikusita, lu-

rretako Emakumeen Birako antolatzailerik egutegira batzeko proposamena aurkeztu zuten eta UCI-k onartu egin du. "Emakumeen Bira antolatzen ibili garenez, tankerako lasterketak antolatzeko esperientzia sobera genuela iritzi diote eta gure proposamena onartu dute",

Euskal Herrian zein estatuan sekula ere ez da tankerako lasterketarik antolatu orain arte

azaldu du Agus Ruiz Iurretako Emakumeen Bira klubeko kideak. Horiek horrela, egutegian ohikoak diren Italiako eta Belgikako lasterketa banari eta Herbehereetako

hirurei, Euskal Herriko eta Frantziako beste bana gehituko zaie.

Emakumeen Birako diruagaz

Iurretako klubekoek ez dute Emakumeen Bira berriro antolatzeko asmorik. Bere sasoian iragarri zuten Jaurilaritzaren aldetik sostengu handiagoa jaso ezik bertan behera utziko zutela, eta harrezkero deirik jaso ez dutenez, erabakiari eusten diote. Baina oraindino Durangaldeko hainbat udalen diru-laguntzari eusten diote, eta horri etekina ateratzeko asmoa dute. "Azkenean, diru hori emakumeen txirrindularitzan inbertitzeko erabili daiteke eta ez dugu aukera hori alperrik galdu gura. Gurago dugu emakumeen lasterketak antolatzen jarraitu, eskala

txikiagoan bada ere", azaldu du Ruizek. Babesle pribatuen laguntzak lortzen ere ahaleginduko dira.

UCI-k 2020ko egutegia publikatu zuenetik, hainbat taldek eskatu dute gonbidapena eskualdeko proban parte hartzeko: Ameriketako Estatu Batuetako selekzioak, Danimarka-

Dagoeneko hainbat taldek eskatu dute gonbidapena; tartean, Ameriketako Estatu Batuetako selekzioak

ko eta Espainiako talde banak, Herbehereetako eta Frantziako binak eta Iurretako CAF Turnkey taldeak. Etorkizunean talde gehiago batu daitezke.

Jokaldia

Oihana
Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak



Bideak

Arruazuko Aritz Ganboa artzain eta mendi korrikalari amorratuak dokumental oso interesgarria egin du oraintsu: *Bideak*. Aspalditik buruan zebilkion ideia zen, eta, azkenean, ideia errealitate bilakatu du. Dokumentalak erronka bat du oinarri: Arruazu (bere aitaren jaioterria) eta Izaba (amarena) herriak batzea, batetik bestera jarraian korrika eginda, 168 kilometro Pirinioetan zehar mendirik mendi, soinean Idiazabal jatorri-deitura duen gazta bat eramanda, berak egindakoa. Izaban, helmugan, Maria Collado emakumezko artzain gazteari bere gazta eman, eta haren eskutik Erronkari jatorri-deiturakoa hartuko du. Baina dokumentalak ez du erronka hori bere horretan erakutsi nahi. Ibilbidea bereziki diseinatu zuen Aritzek, toki estrategiko eta garrantzitsuetatik igaro nahi zuelako, bere hausnarketak egiteko eta landa bideen istorio interesgarriak kontatzeko. Funtsean, artzainen bizimoduaren garrantzia –baita emakumezko artzainena ere– eta Idiazabal eta Erronkari jatorri-deitura duten gazten garrantzia azpimarratuko du. Gure kulturaz, historiaz eta ondareaz ere luze eta zabal hitz egingo digu. *Izan zirelako gara eta garelako izango dira*. Horixe da Aritzek aukeratutako leloa bidaia honetarako.

Erronka honetan, bidelagun asko izan ditu Aritzek, baina Iker Karrera korrikalaria izan da berarekin ibilbide osoa egin duen bakarra. Nik neuk ere izan dut aukera bidaia polit honetan parte hartzeko, eta, egia esanda, liluratuta geratu naiz emaitzarekin.

Bideak-ek 2020an ikusiko du argia. Zorionak Aritzi eta lantalde osoari!

Urriaren 30etik
Nafar hegoaldeko uza
euskarari puzka
azaroaren 20ra

AGER ALDIA

ESKATU SASKIAK ETA SUSTATU EUSKALGINTZA NAFARRA HEGOALDEAN, SASKIEN BALIOAREN %25 BIDERATUJO DA ZONALDEKO IKASTOLAK, SORTZEN ETA ABERRI LAGUNTZERA ETA, GAINERA, "AGER VASCONUM" EAN EUSKARA PLAZARA. ATERATZERA DATORREN EKIMEN BERRIA ABIAN JARTZERA.

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

**Fernando Uribe**
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

**DURANGO**
135 m²
3 logela
MONTEBIDEO: 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E=E

**DURANGO**
3 komun
4 logela
DURANGO: Estreinatzeko. Logela 1, 175.000 €. 2 logela eta 2 komun, 239.000 € Ganbara eta 2 garaje. BEZa barne.

**DURANGO**
100 m²
3 logela
2 komun
SAN INAZIO: Homa-amairekin, sukaldea eta egongela terrazagaz. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Alokairuan erosteko aukeragaz. C.E.E=E
256.000€

**DURANGO**
82 m²
ERRETENTXU: Guztiz berriztatua. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan. C.E.E=E Alokairuan erosteko aukeragaz.
230.000€

**DURANGO**
3 logela
2 komun
SAN INAZIO: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara eta garajea.
260.000€

**IURRETA**
3 logela
IURRETA: komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. mailako materialekin berriztatua. C.E.E=E
97.500€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.
DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

IURRETA
MASPE KALEA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeko baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeko lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €

ATXONDO: Baserri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

BERRIZ: Baserri ederra, Murgoiitioko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

**DURANGO**
3 logela
94 m²
DURANGO: Aukera herrigunean, igogailuagaz. Berrikuntza estreinatzeko. Erabilgarri: Sukalde (jantzi berria) eta 2 bainugela (berri-berriak).
230.000€

**ABADIÑO**
96 m²
ABADIÑO: 63,57m². 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trasteleku handia. 96 m²-ko terraza.
214.500€

**DURANGO**
2 logela
18 m² garaje itxia aukeran
GOIENKALE: Egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Ezin hobea. Fatxada, patioa eta teilatua egin berriak. Garajerik gabe 185.000€
Garaje eta guzti 214.900€

**DURANGO**
4 logela
80,76 m²
ARAMOTZ: 80,76 m². 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Hobekuntzaren bata behar du.
116.000€

**DURANGO**
4 logela
62 m²
DURANGO: Juan de Itziar. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoiak ekialdera eta mendebaldera ematen du.
115.000€

**ZALDIBAR**
3 logela
59 m²
4 m² txabola
ZALDIBAR: Komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Orturako edo jolasgunerako lursailagaz (40m² inguru). Txabola bat ere badauka (4 m²).
87.000€

//DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.
IBAIZABAL: logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000 €** / E.E.Z= E
KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000 €** / E.E.Z=F

MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000 €.** / E.E.Z=F

SANTIKURUTZ KALEA: etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 €** / E.E.Z=E

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 €**/E.E.Z=E

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Trastelekua eta garajea. **235.000 €** / E.E.Z=E

//BERRIZ

BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000 € / ORAIN **160.000 €** / E.E.E=E

ELIZONDO AUZO: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € / ORAIN **134.000 €** E.E.Z=G

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 €** E.E.Z=E

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 €**/ E.E.Z=G

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 €** / E.E.Z=E

SARRIA AUZO: Baserria 4.000 m²-ko lur sailagaz. **400.000 €** / E.E.Z=E

//IURRETA

FAUSTE: Baserria lurzoruagaz, **220.000 €** / E.E.Z=G

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000 €** / E.E.Z=F

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 €** / E.E.E=F

OLETA AUZO: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000 €**/ E.E.Z=E

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000 €** / E.E.Z=E

//BERRIAK

//DURANGO

KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000 €**/ E.E.Z=G

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m2-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko politta alokatzen da elorrion...50 m2...igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel.: 699 17 40 23

Durango. Bi gazte langile alokatzeko pisu bila gabiltza Durangon. Baditugu altzariak, beraz, nahiago dugu etxea erdi hutsik egotea. 11 urteko eta 5 kiloko txakur eme txiki bat daukagu, etxean egotera ohituta dagoena. Tel.: 615 781 068.

OPORRETAKE ETXEBIZITZAK PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Axondo. Arrazolan (Axondo) baserri batean bizi garen 3 neska feminista etxea partekatzen

pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 650 90 14 91

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sulkalde lanetan. Goizez eta arratsaldez lan egin dezaket. 3

urtez lan egin dut zaharren egoitza batean. Titulu bat daukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel.: 688 64 06 04

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel: 688 64 59 83 zenbakira.

ETXEO LANAK

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburutan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako

prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali Tel.: 602 89 50 18 telefonora. Gazteleraz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila.

Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko prest nago. Baita etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko eta sukaldaritza lanak egiteko ere (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

PERTSONA HELDUA ZAINTEKO PERTSONA BEHAR DA. Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko jardunaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa

izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 74 49 88

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest.

0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 zenbakira.

IRAKASKUNTZA

IRAKASLE BEHARRA. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa jakitea ere baloratuko da. 686810203

Portugeseko klase partikularrak.

Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera


Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak

anboto
komunikabideak



Botikak

BARIKUA, 8 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
ZAPATUA, 9 · 09:00-09:00	
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
09:00-13:30	
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
09:00-14:00	
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
DOMEKA, 10 · 09:00-09:00	
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
	ASTELEHENA, 11 · 09:00-09:00
	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
	09:00-22:00
	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
	MARTITZENA, 12 · 09:00-09:00
	DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO
	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
	09:00-22:00
	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
	EGUAZTENA, 13 09:00-09:00
	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
	09:00-22:00
	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
	EGUENA, 14 · 09:00-09:00
	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
	09:00-22:00
	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Momentu ederrak eta haserre batzuk pasau doguz 13 urtien, bizitza eder hau goxotu eta gozau daigun maitte zaittugunon artien!



Putz eta putz ein biko dozue hain-beste kandela amatetako! Mille zorion zuentzat, **Lier** eta **Martin**



Zorionak gure etxeko printzesari! 7 urte jada. Oso ondo pasa zure egune. Musu haundi bat etxekoen partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Unax**! Egun polit bat euki zure urtebetetze egunean! Etxeko guztien partez mosu erraldoi bat.



Mutil noble, pixkat pijue zugaittik dogu entzune merezi dozun eran zelebraz mundura etorri ziñen egune.



Aurreko egunetan **Oierrek** 3 urte eta **Lierrek** 7 egin dituzte. Zorionak, bikote, eta muxu handi bat aitatxoren eta amatxoren partez.



Bidartek 10 urte bete dauzenien Bargundiatik zorion berue.



Zorionak, **Magali**! 7 urte ein dozuz eta bihar edertotxo ospatuko dogu txokolate goxoarekin. Maite zaitugu, laztana!



Azaroaren 7an **Garazik** 8 urte egin zituen, eta **Aiur** bere lehen-gusuak 7. Zorionak bioi eta patxo potolo bana familiakoen partez.



Zorionak, **Jurgi**! 4 urte! Musu handi bat aitarene, amarene eta lararene partez.



Zorionak, **Marilo**! Azaroaren 3an 80 urte. Muxu bero eta handi bat zure familiarene partez.



Gure etxeko txikia! Zorionak etxekoene partez. Oso ondo pasa egune! Maite zaitugu.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 12° / 8°	☁️
DOMEKA 🌡️ 10° / 8°	☁️
ASTELEHENA 🌡️ 9° / 7°	☁️
MARTITZENA 🌡️ 10° / 7°	☁️
EGUAZTENA 🌡️ 8° / 5°	☁️
EGUENA 🌡️ 10° / 4°	☁️

“Emandakoa baino gehiago jaso dugu bezeroengandik; gure motorra izan dira”

Muxikako Astei jatetxeak Durangaldeko makina bat bezero hartu ditu urte askoan, baina domekan zarratu egingo dute. Jantokia gainezka dute egunotan. Ateak itxiko dituela jakinda, 20 urte hauetan bezero izan direnak agurtzera joan zaizkie

Resu Mandaluniz Arrazola (1954, Muxika)
• Astei jatetxea

Berba bitan

Bizitzeko lelo bat

Nire eguneroko lana afizio bihurtzea.

Menu bat

Barazki krema eta arrain zopa.

Zaletasun bat

Lana.

Egingo zenukeen bidaia bat

Ez naiz izan bidaiatzekoa. Igual orain hasiko naiz, eta oiloloken moduan ibiliko naiz.

Zerk hasarrarazten zaitu gehien?

Alferkeriak.

Zer estimatzen duzu?

Zintzotasuna. Bakoitzak bere abiadura du, bere aldeko eta kontrakoak ditu eta hori baloratu eta errespetatu behar da.

Mendia ala hondartza?

Biak.

Kafe ala infusia?

Infusioa. Kafea hartzeko nahikoa urduria naiz.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Resu emozio handiz bizi ditu egunok. Domekan zabalduko dute azkenengoz Astei jatetxeko jantokia, eta ezin sinetsita daude. Familian eraman dute dena eman dien jatetxea. Urtz alaba alboan duela egin du ANBOTOK solasaldia Resugaz. Negarrari ezin eutsi momentu askotan. Amaren jaiotetxea izan zena —Resu bera ere han jaioa da—erosi eta berriztu egin zuten. Nekazaritza Turismoa zabaldu zuten lehenengo, eta lau urtera jatetxea.

Nola daroazu azken 20 urtean gobernatu duzun jatetxea itxi beharra?

Pena handiagaz. Polita da jendeagaz lan egitea, asko maite gaituzte. Honetarako bokazioa izan dut eta alabek ere bai; beti pozik jardun dugu. Erretiratzeko adina heldu zait eta, neurri handian osasunak behartuta, utzi egingo dut.

Familian elkartzeko tokia izan duzue.

Eta horrela izaten jarraituko du. Madriletik edo Bilbotik etorri, beti berdin tratatu ditugu bezero guztiak. Etxean lez sentitu direla esan digute beti, eta batere kostatu barik egin dut hori: ijito, alkate zein gotzain, denak tratatu behar dira ondo. Bezeroei asko diet eskertzeko.

Lanbide baino gehiago, bizitza izan duzu Astei jatetxea.

Bizitzeko modua izan dut. Urteberri eta Natibitate egunez itxi dugu jantokia, baina taberna zabalik egon da egun horietan ere. Urte guztian izan ditu ateak zabalik.

Ohiturak aldatzea kostatu egingo zaizu? Lasaiago biziko zara...

Lasaiago bai, baina asko kostatuko zait ohiturak aldatzea. Gogorra egingo zait. Beti jende artean egin dut lan eta jende artean bizi izan naiz. Beti jende ona. Zimela jate-txean hasi nintzen ostalaritzan,

orain ia 40 urte; gero, Arrien hartu nuen, beste bategaz. Orduango bezeroak Asteira etorri dira ospakizunak egitera, eta asko eskertzekoa da.

Ez zara geldi egotekoa. Badituzu proiektuak gogoan?

Beti gura izan dut informatika ikastoren bat egin, eta egiteko dudan beste gauzetariko bat uger egiten ikastea da. Baliteke ahalegina egitea. Ilobekin disfrutatzen eta lasai bizitzen ahaleginduko naiz. Nekazaritza turismoan ere jarraituko dut, jendeagaz harremanetan. Hori ez da lana niretzat.

Hartuko du inork testigua?

Ez dakit, gatx ikusten Gizartea aldatu egin Gaur egun, lanerako inkazioa bestelakoa da. Alaba prest agertu da, baina ardura hau guztia berak bakarrik hartzea ez dut gura. Jatetxea guk biok lez eroateko prest dagoen norbait behar du alabak, nik bera behar izan dudun moduan.

Zelan hartu dute berria bezeroek?

Txarto. Jatetxearen martxa ona ikusita, egunerokoek ez dute ulertzen. Baina dena ez da dirua. Familian negozioa izan dutenek erabakirik onena hartu dugula esan digute. Alabak esan du bueltatuko dela honek beste motibatzen ez duen lan bat topatzen ez badu, taberna eta terraza eroateko bada ere. Bezeroek ez dute sinistu gura eta geuk ere ez oraindino.

Zuk zer duzu esateko bezeroei?

Eskerrak eman baino ez. Eman diguten maitasunagatik, baloratu gaituztenagatik. Deneriko bezeroak izan ditugu 17tik 80taka

urtera artekoak, eta guk emandakoa baino gehiago jaso dugu bezeroengandik. Gure motorra izan dira.



Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Trintxeran

Oporto ezagutzeko asmoz eginitako oporraldian, jatetxe xume batean geundela telebistara begiratu eta Bartzelona sutan ageri zen. Espainiako erregearen argazkiak erretzen zebiltzan katalanak. Gaztelaniaz eskatu genion jatekoa zerbitzariari, eta konplizitatez komentatu zigun: “Txarto zaudete Espainian, e! Domekan berriro ere hauteskundeak, ezta?”. Nire baitarako pentsatu nuen zerbitzariaren ardura hori albiste ona zela guretzat. Kaleetan piztutako errebotak, izan manifestazioetan zein autodefentsako barrikadetan, desegonkorra den estatu bat erakusten du munduaren aurrean. Procesaren sententzia atera zen egunean Guardiolak BBCn egin zuen berba Tsunami Democràticen izenean, espainiar gobernuari jesarri eta berba egitea exijitzeko, eta ez Telecincon.

Euskal Herrira bueltatzean, *La trinchera infinita* pelikula ikusi dudun egun berean VOXeko faxistekin egin dut topo, 1937an erre zituzten Durangoko kaleetan. Eta, nago, ez ote gauden orduko trintxera berean oraindik ere. Abascalen begirada baino ilunagoa den etorkizun baterako beldurra zabaltzen doa; bere alderdiak debateetan eginitako marketinaz harago, beldur errealagoa sortu didate Sanchezen iragarpenek: Interneteko sareak epaileen agindu barik zarratzea, erreferendumak debekatzeko lege bat idaztea... Espainia bere kabuz demokratizatuko den esperantza dutenek hobe dute loterian jokatu.

Domekan soberanistoi dagokiguna erresistentziari eustea da, faxistei zaplazteko bat ematea, katalanekin batera erregimena hausteko prest gaudela erakustea, eta munduari egoera desegonkor bat ikustarazten jarraitzea.

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako
kriantzarik onena

